

Bertsomovieda! Lehiaketa

Beasain 2013 Oinarriak

1.- Edozein pertsonak, taldek edo koadrilak hartu ahal izango du parte: norberak bakarrik, ikasle taldeek, kirol taldeek, koadrilek, kultur taldeek...

2.- Adinari eta bizitokiari dagokienez, mugarik ez dago: edonork har dezake parte, **bertsomovie**an euskarazko bertsoak txertatzen dituen bitartean.

3.- **bertsomovie**a bertsoak dauzkan bideo bat da, **bertsomovie** izateko bi elementu horiek izatearekin nahikoa da. Gutxienez bertso bat eduki behar du, eta euskaraz izan.

4.- Bideoak, amaieran "gustatu bazaizu, bozkatu www.bertsomovieda.com webgunean" leloa azaldu behar du, garbi ikusi eta ulertzeko moduan, eta gutxienez 7 segundoko iraupenarekin.

5.- Parte hartzeko talde edo pertsona bakoitzak nahi adina **bertsomovie** aurkeztu ahal izango ditu.

6.- Bidaltzeko pausuak:

- **Lehenik**, Internet bidez, nahi den webgunera (youtube, vimeo, euskaltube...) igo bideoa
- **Ondoren**, www.bertsomovieda.com webgunean Parte hartu atalean dagoen inprimakia bete:
 - Izen-abizenak (taldea izanez gero, kontaktuko pertsonarenak)
 - Herria
 - Harremanetarako emaila
 - Harremanetarako telefonoa
 - Kategoria:
 - GAZTEAK: **DBH 4**ra artekoak, DBH 4koak **barne**
 - HELDUAK: Gainerako guztiak
 - Bideoaren helbidea (aurrez igotako bideoaren interneteko helbidea)
 - **bertsomovie**ko bertsoak idatziz (testu-fitxategi batean)

7.- Sariak:

- GAZTEAK: **400 € bertsomovie** onenari
- HELDUAK: **1000 € bertsomovie** onenari
- Ikusleen saria: **500 €** www.bertsomovieda.com webgunean botorik gehien jasotzen dituen **bertsomovie**ari
- Aipamen berezia: **350 €** epaimahaiak hala erabakitzen duen **bertsomovie**ari
- Bertsorik onenak: **250 €** epaimahaiaren ustez bertsorik onenak dituen **bertsomovie**ari

8.- Epeak:

Lanak aurkezteko epea: **2013ko otsailaren 1etik 2013ko martxoaren 13ra**.

Webgunean bozkatzeko epea: **2013ko martxoaren 18tik 2013ko martxoaren 24ra**

9.- Epaia eta sari-banaketa:

Sari-banaketa **2013ko apirilaren 12an** izango da Beasainen, eta sarituen izenak aldeztu aurretik emango dira jakitera hedabideetan.

10. -Saritutako talde bakoitzak ordezkari bat gutxienez bidali beharko du sari-banaketarako egingo den ekitaldira.

11.- **bertsomovieda** lehiaketan parte hartzeak arau hauek onartzea dakar. Antolakuntzak eskubidea izango du jasoko diren bideoak Interneten eskegitzeko eta zabaltzeko, hala nola beste hedabideetan zabaltzeko ere.

12.- Antolakuntzak bere esku izango du elementu iraingarriak dauzkaten bideoak lehiaketatik kanpo uzteko aukera.

13.- Antolakuntzak oinarri hauek aldatuko balitu, parte hartzaileei garaiz eta behar bezala jakinaraziko lieke.

Antolatzailea:



ARRANO KULTUR-ELKARTEA

Babesleak:



Beasaingo udala

